

AURREKONTUEN KONTU EMATEA
ESTATU ETA NAZIOARTE MAILAKO EREDUAK ETA PRAKTIKA ONAK

Aurkibidea:

| | |
|--|----|
| 1) SARRERA..... | 3 |
| 2) INTERNATIONAL BUDGET PARTNERSHIP – OPEN BUDGET SURVEY..... | 4 |
| 3) INTERNATIONAL BUDGET PARTNERSHIP – SPARK PROIEKTUA | 8 |
| 4) INTERNATIONAL BUDGET PARTNERSHIP – HERRITARREN AURREKONTUAK | 9 |
| 6) GIFT – ZERGA GARDENTASUNeko PRINTZIOAK | 12 |
| 7) OPEN BUDGETS.EU – GOBERNUEN GARDENTASUN FINANTZARIOKO PRAKTIKA HOBERENAK..... | 14 |
| 8) FUNDACION CIVIO – DÓNDE VAN MIS IMPUESTOS..... | 16 |
| 9) GOBIERTO – VISUALIZADOR DE PRESUPUESTOS | 18 |
| 10) GOVERNALIA – CON MIS IMPUESTOS..... | 19 |
| 11) LOCALIDATA..... | 20 |
| 12) COOK COUNTY OPEN BUDGET | 21 |
| 13) HERBEHEREETAKO HAINBAT UDALERRIEN AURREKONTUAK IRUDIKATZEKO INFOGRAFIK | 22 |
| 14) RIDDERKERK UDALERRIAREN AURREKONTUEN BISUALIZAZIO WEBGUNEA | 23 |
| 15) ESPAINAR ESTATUKO AURREKONTU OROKORREN BISUALIZAZIO ORRIA..... | 24 |

1) SARRERA

Dokumentu honetan erakunde publikoek beren aurrekontuak ezagutzera emateko eta hauen inguruan kontu emateko sortu dituzten eredu eta tresna ezberdinak jaso ditugu.

Aurrekontuek kudeaketa publikoan berebiziko garrantzia dute, baliabide publikoak era gardenean eta eraginkorrean kudeatzen direla bermatzeko erakundeek daukaten tresna nagusia direlako. Eta gobernantza kolaboratiboaren filosofiari jarraituz, kudeaketa publikoa zuzena eta eraginkorra dela bermatzeko aurrekontuen kudeaketa-prozesu guztian zehar herritarrak inplikatzeko behar-beharrezkoa da. Hori dela eta, mundu osoan erakunde publiko asko ahalegin handia egiten ari dira aurrekontuak herritarrei gerturatzeko eta kudeaketa publikoa era erraz eta ulergarrian eskuragarri jartzeko.

Ondoren aurkeztuko diren kasu praktikoak zerikusi zuzena dute aurrekontuen gardentasunarekin eta hauei buruzko kontu emate eraginkorrarekin. Aurkitu ditugun nazioarteko eredu eta praktika onenak bildu ditugu eta bakoitza ezagutzeko erreferentziak zehaztu ditugu, hauen azterketarako baliagarriak izango direnak. Helburua da proiektuaren lehenengo faseetan zehar praktika hauek ezagutzea eta hauen azterketatik eredu propio baten diseinurako irizpideak eta ideiak biltzea.

Hauek izan dira identifikatu ditugun eredu eta praktika egoki aipagarrienak:

2) INTERNATIONAL BUDGET PARTNERSHIP – OPEN BUDGET SURVEY

<https://internationalbudget.org/>

International Budget Partnership aurrekontu-analista, antolatzaile komunitario eta defendatzaileek osatutako interesik gabeko elkarte globala da, herritarrei egokitutako aurrekontu publikoen sistemak sustatzeko lan egiten duena. Elkarrekin, datuak sortzen dituzte, berrikuntzaren alde egiten dute eta pertsonen trebetasunak eta ezagutza eraikitzen dituzte, guztiek ahotsa izan dezaten beren bizitzetan eragina duten aurrekontu-erabakietan. Aurrekontuak kudeatzeko orduan bultzatu nahi duten eredia Aurrekontu Irekiena da, hau da, aurrekontu publikoak edo hauen zati bat herritarren partaidetzaren bitartez erabakitzeko prozesuak abian jartzea sustatzen dute.

OPEN BUDGET SURVEY PROIEKTUA – AURREKONTU PUBLIKOEN IREKIERA-MAILAREN AZTERKETA

<https://internationalbudget.org/open-budget-survey>

Open Budget Survey izeneko ekimenean urtero-urtero aurrekontu publikoen irekiera-mailaren azterketa egiten dute eta ondoren mundu mailako *ranking* bat argitaratzen dute. Ranking hau osatzeko, besteak beste, aurrekontuen gardentasun maila neurtzen dute; hau da, aurrekontuak zein mailatan diren ulergarriak eta eskuragarriak herritarrentzat.



Txosten honetan aipatzen dira, eredugarri bezala, ondorengo herrialdeen aurrekontuak:



- Georgia
- Hego Africa
- Zelanda Berria
- Suezia
- Mexico
- Norvegia
- Brasil
- Australia
- Dominikar Errepublika

Aipatutako herrialdeetako gobernuen artean, ondorengo praktika onak aipa genitzake:

- Hego Afrika: Aurrekontu Publikoaren txosteneko “Highlights” atala

<http://www.treasury.gov.za/documents/national%20budget/2022/review/FullBR.pdf>


Aurrekontuaren urteko txostenaren hasieran “Highlights” izeneko atala txertatzen dute. Atal honetan aurrekontu buruzko informazio sinplifikatua eskaintzen dute era bisualagoan, laburpen modura.



- Zelanda Berria: “Budget at a Glance”

<https://www.treasury.govt.nz/system/files/2022-05/b22-at-a-glance.pdf>

Zelanda Berriko gobernuak “Budget at a Glance” aurrekontua era azkarrean ulertzeko dokumentua argitaratzen du urtero. Bertan politika eta aurrekontu-partida nagusiak azaltzen dira.



- Suedia: “Aurrekontua zifratan” web orria

<https://www.government.se/government-of-sweden/ministry-of-finance/central-government-budget/central-government-budget-in-figures/>

Suediako gobernuak hurrengo urteetarako aurrekontuen aurreikuspena aurkezten du “Aurrekontua zifratan” izeneko web orrian. Orria oso sinplea da eta datuetan zentratuta dago.

The image shows two screenshots from the Swedish government's budget website. The left screenshot is titled 'Central government budget in figures' and includes a table for 'Budget balance and Central government debt' with columns for 2021, 2022, 2023, and 2024. The right screenshot is titled 'Central government expenditure' and shows a table with 27 expenditure areas, such as '1. Government', '2. County and municipal administration', and '3. Social services and welfare', with columns for 2021, 2022, 2023, and 2024.

- Brasil: “Orçamento Cidadão”

https://www1.sioip.planejamento.gov.br/QvAJAZZfc/opendoc.htm?document=IAS%2FExecucao_Orcamentaria.qvw&host=QVS%40pqik04&anonymous=true&sheet=SH15

Brasilgo gobernuak web bisore bat argitaratzen du aurrekontuei buruzko informazio xehea era errazean ikusi ahal izateko. Bertan ikus daiteke gobernuaren arlo bakoitzari zenbat baliabide esleitzen zaion, eta esleitutako baliabideetatik zenbat erabiltzen diren.

The image shows a screenshot of the 'Orçamento Cidadão Digital' website. It displays a grid of budget categories with their respective values in Brazilian Reals (R\$). Categories include: Administração (R\$ 28,2 Bilhões), Agricultura (R\$ 24,3 Bilhões), Assistência Social (R\$ 109,1 Bilhões), Ciência e Tecnologia (R\$ 12,7 Bilhões), Comunicação (R\$ 3,6 Bilhões), Cultura (R\$ 1,8 Bilhão), Defesa Nacional (R\$ 85,8 Bilhões), Desporto e Lazer (R\$ 302,2 Bilhões), Direitos de Cidadania (R\$ 1,0 Bilhão), Educação (R\$ 120,9 Bilhões), Energia Especial (R\$ 3,9 Bilhões), Energia (R\$ 1,7 Bilhão), Essencial à Justiça (R\$ 8,8 Bilhões), Gestão Ambiental (R\$ 4,0 Bilhões), Habitação (R\$ 8,1 Bilhões), Indústria, Comércio e Serviços (R\$ 5,2 Bilhões), Justiça (R\$ 43,0 Bilhões), Legislação (R\$ 9,4 Bilhões), Organização Agrária (R\$ 1,3 Bilhão), Previdência Social (R\$ 855,0 Bilhões), Relações Exteriores (R\$ 4,3 Bilhões), Serviços de Transporte (R\$ 58,8 Bilhões), Saneamento (R\$ 300,0 Bilhões), Saúde (R\$ 127,9 Bilhões), Segurança Pública (R\$ 12,8 Bilhões), Trabalho (R\$ 90,3 Bilhões), Transporte (R\$ 19,6 Bilhões), and Turismo (R\$ 1,3 Bilhão).

The image shows a detailed view of the 'Educação' (Education) budget category on the 'Orçamento Cidadão Digital' website. It displays a table with columns for 'Ano 2022', 'Orçamento da Lei', 'Orçamento da Lei do Congresso Nacional', 'Orçamento da Lei do Congresso Nacional', 'Orçamento da Lei do Congresso Nacional', 'Orçamento da Lei do Congresso Nacional', and 'Orçamento da Lei do Congresso Nacional'. The values are: Orçamento da Lei (R\$ 120,9 Bilhões), Orçamento da Lei do Congresso Nacional (R\$ 120,9 Bilhões), Orçamento da Lei do Congresso Nacional (R\$ 120,9 Bilhões), Orçamento da Lei do Congresso Nacional (R\$ 120,9 Bilhões), Orçamento da Lei do Congresso Nacional (R\$ 120,9 Bilhões), and Orçamento da Lei do Congresso Nacional (R\$ 120,9 Bilhões).


- Australia: Aurrekontu publikoen web ataria

<https://budget.gov.au/>

Australiako gobernuak web atari oso interesgarria argitaratu du bere aurrekontu publikoei buruzko informazio ugarirekin. Maila ezberdinetako informazio dinamikoa aurki daiteke bertan, eta dokumentu sinpleagoak ere laborpen modura.

3) INTERNATIONAL BUDGET PARTNERSHIP – SPARK PROIEKTUA

<https://internationalbudget.org/spark/>



SPARK - Strengthening Public Accountability for Results and Knowledge

SPARK ekimena erakunde zibil eta mugimendu sozial handi eta indartsuekin elkartzen da, zerbitzu eskasiaren atzean dauden erronka fiskalak ulertzen laguntzeko eta gastu publikoaren hobekuntza eraginkortasunez defendatzeko beharrezkoak diren ezagutza eta tresnak hornitzen laguntzeko. SPARK-ek "behetik gorako" aldarrikapen-mugimendu handien indarra eta bultzada uztartzen ditu komunitate ahulentzako oinarrizko zerbitzuak hobetzeko eskaintzen ditugun finantza publikoen espezializazio eta esperientzia zuzendutakoarekin.

SPARK proiektuak garapen bidean dauden zenbait herrialdetan ekimenak bultzatu ditu: Ghana, India, Indonesia, Kenia, Nigeria, Senegal eta Hegoafrika. Orokorrean, **herritarrek beharrezko dituzten oinarrizko zerbitzuetara sarbidea bermatzeko proiektuak** dira; besteak beste, ura eta saneamendua, osasun zerbitzuak, gizarte laguntzak, nekazaritza, etab.


4) INTERNATIONAL BUDGET PARTNERSHIP – HERRITARREN AURREKONTUAK

<https://internationalbudget.org/publications/citizens-budgets/>

Proiektu honen helburua da Aurrekontu Publikoak herritarren eskura jartzea, era erraz eta ulergarrian. Horretarako Herritarren Aurrekontuak sustatu nahi dira, hau da, herritarrek ulertu ahal izateko prestatutako aurrekontuak. Zenbait herrialdeetako gobernuak argitaratutako ereduak aurkezten dira ondoren:

MEXICO – HERRITARREN AURREKONTUAK

https://www.transparenciapresupuestaria.gob.mx/es/PTP/Infografia_PEF_2022



Mexikoko gobernuak herritarrek ulertu ahal izateko moduko aurrekontu publikoak argitaratzen dituzte 2019. urtetik. Hasieran eskuorri moduan egiten zuten, orain web formatuan egiten dute.

Aurrekontu publikoen datuak era ulerterraz eta erakargarria eskaintzea da helburua. Horretarako diagrama eta grafika ezberdinak erabiltzen dituzte. Gainera, besteak beste, proiektuen erreferentzia geografikoak eta datu irekien deskargak eskaintzen dira.

ALEMANIA – HERRITARREN AURREKONTUAK


<https://www.bundeshaushalt.de/DE/Home/home.html>



Alemaniako gobernuak web orri erakargarria sortu du bere aurrekontuei buruzko irudikapen dinamiko, infografia interaktiboak eta bideoak eskaintzen dituena.

INDONESIA – HERRITARREN AURREKONTUAK


<https://internationalbudget.org/wp-content/uploads/indonesia-2019-citizens-budget.pdf>



Indonesiako gobernuak bere aurrekontuei buruzko .pdf formatudun eskuorria atera zuen 2019. urtean. Eredu sinple eta estetikoki erakargarria, estatikoa (dokumentu formatuan) baina informazio interesgarria eskaintzen duena.

TANZANIA – HERRITARREN AURREKONTUAK

<https://internationalbudget.org/wp-content/uploads/tanzania-2018-2019-citizens-budget.pdf>



Tanzaniako gobernuak bere aurrekontu publikoak aurkezteko komiki formatuko dokumentua sortzea erabaki du. Dokumentu honetan informazio tekniko zabala dago eta honekin batera komiki itxurako irudikapenak, kontzeptuak era errazagoan aurkezteko.

DOMINIKAR ERREPUBLIKA – HERRITARREN AURREKONTUAK

<https://www.transparenciafiscal.gob.do/web/guest/presupuesto>



Dominikar Errepublikako gobernuak zerga-gardentasunari buruzko webgune bat dauka eta bertan urtero herritarren aurrekontuak argitaratzen ditu dokumentu formatuan, informazio ulerterraza eta erakargarria eskaintzen dutenak. Gainera, aurrekontuen kudeaketa ulertzeko zenbait dokumentu ere badituzte, hala nola, “Comprender el Presupuesto” izenekoa, non azaltzen den aurrekontu publikoak onartzeko eta kudeatzeko prozesu osoa.

HEGO AFRIKA – HERRITARREN AURREKONTUAK

<http://www.treasury.gov.za/documents/national%20budget/2022/default.aspx>



Hego Afrikako gobernuak urtero aldizkari formatuan argitaratzen du bere Aurrekontua, “Peoples Guide” izenarekin. Dokumentu honetan aurrekontuko informazio nagusienak aurkezten dira era grafikoan eta era ulergarrian.

6) GIFT – ZERGA GARDENTASUNENKO PRINTZIOAK

<https://fiscaltransparency.net/>

Zerga Gardentasunerako Ekimen Globala (GIFT, ingelesezko siglen arabera) mundu mailako sare bat da, sailburuen eta bazkideen arteko elkarrizketa errazten duena. Gobernuek, gizarte zibileko erakundeek, nazioarteko finantza-erakundeek eta gardentasun fiskaleko eta parte-hartze publikoko erronken konponbideak bilatu eta partekatu nahi dituzten beste eragile batzuek osatzen dituzte kide horiek.

Maila handiko sustapenaren eta elkarrizketaren, parekoen arteko ikaskuntzaren, lankidetzaren teknikoaren, ikerketaren eta parte hartzeko teknologiaren bidez funtzionatzen du. GIFT International Budget Partnership (IBP) sarean kokatzen da administratiboki.

GARDENTASUN FISKALERAKO, PARTAIDETZARAKO ETA KONTUAK EMATEKO GOI-MAILAKO PRINTZIOAK

<https://fiscaltransparency.net/gift-principles/>



Hauek dira zerga gardentasuneko printzipio nagusiak:

Informaziorako sarbide erraza

Pertsona orok du zerga-politikei buruzko informazioa bilatu, jaso eta emateko eskubidea. Eskubide hori bermatzen laguntzeko, nazio-mailako sistema juridikoek zerga-informazioaren erabilgarritasun publikoaren aldeko presuntzio argia ezarri behar dute, bereizketarik egin gabe. Salbuespenak mugatuak izan behar dira, argi eta garbi ezarrita egon behar dute lege-esparruan, eta kostu txikiko berrikuspen-mekanismo independente eta egokien bidez aurkaratu behar dira.

Helburu argiak eta neurgarriak

Gobernuek zerga-politika agregaturako helburu argi eta neurgarriak argitaratu behar dituzte, egindako aurrerapenaren balantzea egin behar dute aldizka, eta planifikatutakoarekiko desbideratze oro azaldu behar dute.

Informazio fidagarria eta kalitatezkoa

Herritarrei kalitate oneko informazio finantzarioa eta ez-finantzarioa aurkeztu behar zaie iraganeko, oraingo eta proiektatutako jarduera fiskalei, jardunari, arrisku fiskalei eta aktibo eta pasibo publikoei buruz. Aurrekontuetan, txosten fiskaletan, kontabilitateko egoera-orrietan eta kontu nazionaletan informazio fiskala aurkezteak gobernuaren betebeharra izan behar du, nazioartean onartutako arauak bete behar ditu eta txosten moten arteko koherentziari eutsi behar dio, edo aldeak azaldu eta bateratu behar ditu. Datuen osotasunari eta informazio fiskalari buruzko bermeak behar dira.

Helburuak jakinaraztea

Gobernuek lortu nahi dituzten helburuak eta ematen zaizkien baliabideekin sortzen dituzten produktuak jakinarazi behar dituzte, eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-arloan espero eta benetakoak diren emaitzak ebaluatzen eta zabaltzen ahalegindu behar dute.

Finantza-transakzioetarako lege-oinarria

Sektore publikoko finantza-eragiketa guztiek legean oinarrituta egon behar dute. Finantza-kudeaketa publikoa arautzen duten legeek, erregulazioek eta administrazio-prozedurek publikoaren eskura egon behar dute, eta haien betearazpena ebaluazio independente baten mende egon behar da.

Argi zehaztutako gobernu-sektorea

Gobernu-sektoreak argi eta garbi definituta eta identifikatuta egon behar du informazioa aurkezteko, gardentasunerako eta kontuak emateko, eta gobernuak sektore pribatuarekin dituen finantza-harremanak ezagutzera eman behar dira, argi eta garbi kudeatu, eta arau eta prozedura argietara mugatu.

Funtzio eta erantzukizun fiskalei buruzko legeria

Diru-sarrera publikoak biltzeko, betebeharrak hartzeko, baliabideak kontsumitzeko, inbertitzeko eta baliabide publikoak kudeatzeko funtzioak eta erantzukizunak argi eta garbi esleituta egon behar dira hiru botere publikoen artean (legegintzakoak, betearazlea eta judiziala), gobernu nazionalaren eta gobernu-maila azpinazional bakoitzaren artean, gobernu-sektorearen eta gainerako sektore publikoaren artean eta gobernu-sektorearen barruan.

Botere legegilearen eskumena

Zergak biltzeko eta publikoaren izenean gastuak egiteko agintaria botere legegilea izango da. Ezin izango da diru-sarrera publikorik bildu, ez gasturik egin, ez eta horiek egiteko konpromisoa hartu ere, legegintzaldiko aurrekontuaren edo bestelako legeriaren bidez onartu gabe. Botere betearazleari baliabide publikoak erabiltzeagatik kontuak emateko eskatzeko behar diren agintaritzak, baliabideak eta informazioa eman beharko zaizkio legegintzaldiari.

Goi Erakunde Fiskalizatzaile independentea


Erakunde Fiskalizatzaile Gorenak exekutiboarekiko independentea izan behar du legearen ikuspegitik, eta funts publikoen erabilera egiaztatzeko eta horri buruzko informazioa publikoki zabaltzeko mandatua, informazioa eta baliabide egokiak izan behar ditu. Independentzia, kontuak ematea eta gardentasuna izan behar ditu ezaugarri.

Zerga politiketan parte-hartze publikoa

Herritarrek zerga-politiken formulazioari eta gauzatzeari buruzko eztabaida eta eztabaida publikoetan zuzenean parte hartzeko eskubidea izan behar dute, eta, estatu ez diren eragile guztiek bezala, hori egiteko benetako aukerak izan behar dituzte.

7) OPEN BUDGETS.EU – GOBERNUEN GARDENTASUN FINANTZARIOKO PRAKTIKA HOBERENAK

<https://openbudgets.eu/>



Open Budgets Europar Batasunak bultzatutako ekimen bat da eta bere helburua da erakunde ezberdinei tresnak eskaintzea aurrekontuen gardentasuna eta irekiera bultzatzeko.

Ondoren erakunde honek bultzatutako proiektu interesgarri bat aipatuko da: *Making Budgets Attractive*.

MAKING BUDGETS ATTRACTIVE PROIEKTUA

<https://openbudgets.eu/assets/resources/Report-Laemmerhirt-Making-Budgets-Attractive.pdf>

Ekimen honen barnean azterketa bat egin da eta aurrekontuak era erakargarrian aurkezten dituzten europar erakundeak identifikatu dira:




Txosten honetan aipatzen diren zenbait praktika on aipatuko ditugu:

- **Open Bilanci:** Italiako udalen aurrekontu publikoak era grafikoan argitaratzen dituen web plataforma

<https://openbilanci.it/>

Web plataforma honetan Italiako udalerrri guztien aurrekontuei buruzko informazioa aurkezten da era bisual eta errazean. Aurrekontuen laburpen modura, arloka sailkatuta aurrekontu-lerro nagusiei buruzko datuak eskaintzen dira, urtez urteko konparaketekin eta xehetasun handiarekin.



| TRASPORTE E DIRITTO ALLA MOBILITÀ | DIRITTO UOMO | TUTELA E VALORIZZAZIONE DEL TERRITORIO |
|---|--------------|--|
| DEI FIDUCIARI PER IL BIENNIO 2021 | | |
| TOTALE SPESE | € 17.891.822 | SPESE CORRENTE 14.414.414 |
| DISAVANZO DI AMMINISTRAZIONE | € 0 | SPESE CORRENTE 14.414.414 |
| SERVIZIO ISTITUZIONALE GENERALE DI GESTIONE | € 2.427.065 | SPESE CORRENTE 2.427.065 |
| ORGANISMO ISTITUZIONALE | € 93.954 | SPESE CORRENTE 93.954 |
| SECRETARIA GENERALE | € 484.638 | SPESE CORRENTE 484.638 |
| GESTIONE ECONOMICA, FINANZIARIA, PROGRAMMATIONE, PRODUZIONE | € 175.485 | SPESE CORRENTE 175.485 |
| GESTIONE DELLE ENTRATE TRIBUTARIE E SERVIZI FISCALI | € 231.583 | SPESE CORRENTE 231.583 |
| GESTIONE DEI BENI DEMONIALI, PATRIMONIALI | € 299.679 | SPESE CORRENTE 299.679 |
| UFFICIO TECNICO | € 303.480 | SPESE CORRENTE 303.480 |

- **Presupuestos de Aragón:** Aragoiko gobernaren aurrekontuak argitaratzeko webgunea

<https://presupuesto.aragon.es/>

Webgune honek aurrekontu publikoak era errazean aurkezteko bisorea eskaintzen du eta esatu espainiarrean aintzindari izan zen proiektu baten emaitza izan da. Bisoreak aurrekontu publikoaren laburpena eskaintzen du era bisual eta interaktiboan, eta aurrekontu partida nagusiei buruzko informazioa aurki daiteke.




Aipatu behar dugu bisore hau Aragon Open Data ekimenaren barnean sortu zela eta garapeneko kodea datu ireki moduan gizartearen esku jarri zela. Kode hau abiapuntutzat hartuta, besteak beste, Civio fundazioak “Dónde van mis impuestos” bisorea garatu zuen eta erakunde publiko ugari erabiltzen dute dagoeneko.

- **Zuid Holland probintziaren aurrekontuak:** Aurrekontu publikoen web plataforma

<https://begrotingzuidholland.nl/>

Bisualizadore honek era sinplifikatuan aurkeztu ditu aurrekontu publikoaren lerro nagusiak. Gastuak gaika sailkatzen ditu eta txosten ezberdinen bitartez gai bakoitzaren xehetasunak ikusteko aukera ematen du.



8) FUNDACION CIVIO – DÓNDE VAN MIS IMPUESTOS

<https://civio.es/>

CIVIO Fundazioa gardentasun ezaren aurka borrokatzen duen erakunde bat da. Bere xedea da gai publikoetan benetako gardentasuna lortzea eta horretarako herritarrei behar duten informazioa eman nahi die administrazio publikoei gardentasuna, erantzukizuna eta eraginkortasuna erreklamatzeko. Azken finean lortu nahi duena da herritarren eskubideak eta interesak hobeto defendatzeko eta horren arabera jarduteko tresna eraginkorrak izatea.

Erakunde honek komunikazioan eragiten du, baina ez ohiko kanal edo komunikabideetan. Bere web orrian esaten duen bezala, *“Kazetaritza zorrotza, zaindua eta arduratsua egiten dugu. Eta ez dugu beldurrik erredakziotik ateratzeko, gardentasunean, ustelkeriaren prebentzioan eta kontuak ematean behar ditugun aurrerapenak abian jartzeko. Kazetaritza, bai, baina baita sistema hobetzeko ekintza ere, guztion onerako”*.

Irabazi-asmorik gabeko fundazio independentea da.

“DÓNDE VAN MIS IMPUESTOS” APLIKAZIOA


<https://dondevanmisimpuestos.es/>

Aplikazio honek erakunde publikoei beren aurrekontuak era errazean aurkezteko plataforma bat sortzea ahalbidetzen die. Aragon Open Dataren erduan oinarritua dago eta erakundearen datu-sistemak aplikazioarekin txertatzeko garapen bat egitea eskatzen du plataforma ezarri ahal izateko.

Aplikazio hau erabili duten erakunde batzuk aipatuko ditugun ondoen:

GASTEIZKO UDALA

<https://dondevanmisimpuestos.vitoria-gasteiz.org/es/>



VITORIA GASTEIZ UDALA

AURREKONTUAK OPEN DATA VITORIA GASTEIZ

INGURUPECI GLOBIALA POLITIKAK ORKIDONETAN ETA INBENTSIORAK ZURU EKARPENAK IZUR EGIAN NAHI DU?

Zer zergia ordaintzen du?

Nola eta zertan gastatzen du dirua Gasteizko Udalak?

| | |
|----------------------------------|--------------|
| Politika zehatzak eta proiektuak | 14.000.341 € |
| Lanbide proiektuak eta laguntzak | 13.209.327 € |
| Beste zerbitzuak eta proiektuak | 5.419.447 € |

ikuspegi globala **Politika zehatzak**

Nire zergien ibilbidea



1. Nola eta zertan gastatzen du dirua
2. Zer zergia ordaintzen du
3. Zer zergia ordaintzen du

Gasteizko Udaren diru-sarrerak eta gastuak

Arabako Foru Aldundirik (4. kap.)

MADRILGO UDALA

<https://presupuestosabiertos.madrid.es/es/>



EIBARKO UDALA

<https://dondevanmisimpuestos.eibar.eus/es/>



9) GOBIERTO – VISUALIZADOR DE PRESUPUESTOS

<https://www.gobierno.es/>


Gobierno empresa bat da, gobernu irekiaren arloan adituak diren teknikari, komunikatzaile eta ekintzaileek osatzen dutena. Espainiar estatuko administrazio publikoetan esperientzia handia duite gobernu irekiaren arloko aholkularitza proiektu ezberdinetan.

GOBIERTO – AURREKONTUEN BISUALIZATZAILEA

<https://presupuestos.gobierno.es/>

Bisualizatzaile honek udal baten aurrekontu publikoak era errazean ulertzeko moduan aurkezteko aukera ematen du. Aurrekontuko sail nagusiak aurkezten ditu, gaika sailkatuta, eta biztanleko kopuru erlatiboak ere eskaintzen ditu. Aurreko urteekin eta beste erakundeekin alderaketa egitea ahalbidetzen du ere.

Aipatzekoa da plataforma honek udalen datu finantzarioak automatikoki jasotzen dituela estatu mailako aurrekontuen datu base batetik. Hori dela eta, Gobiortoren web orrian udal ugariren aurrekontuak aurkezten dira, inongo garapenik edo lanketarik egin behar izan gabe.




Bisualizatzaile hau Gobiortoren web orrian eskuragai dagoen arren, oso udal gutxik argitaratu dute bere web orrietan. Hau egin duten erakunde batzuk aipatzearren:

- AJUNTAMENT DE SANT FELIU DE LLOBREGAT - <https://pressupost.santfeliu.cat/>
- AYUNTAMIENTO DE GETAFE - <https://gobiernoabierto.getafe.es/presupuestos/resumen/2022>

10) GOVERNALIA – CON MIS IMPUESTOS

<https://albal.conmisimpuestos.com/intro.jsp>

Con mis impuestos aurrekontu publikoak irudikatzeko eta zabaltzeko plataforma bat da, Governalia enpresak sortua eta hainbat erakunde publikoetan ezarri dena; besteak beste, Valencia-ko Erkidegoko zenbait udalerrietan, Castelló-ko Diputazioan eta Murcia-ko Gobernuan.



Irudikapen orokor batez gain, sarrerren eta gastuen araberako irudikapenak eskaintzen ditu, eta herritarrek ordaindutako zergak nola banatzen diren kalkulatzeko modulu bat ere bai.


Ondoren ezarritako kasu aipagarrienak jasoko ditugu:

- Diputació de Castelló: <https://datoseconomicos.dipc.as/>
- Ajuntament de Lleida: <https://pressupostosajuntament.paeria.cat/?lang=CA>
- Ajuntament de Gavá: <https://pressupost.gavaciutat.cat/>
- Ajuntament de Cornellá: <http://pressupostos.cornella.cat/>
- Murtziako Eskualdeko Gobernu Irekiko ataria: <https://carm.governalia.es/>

11) LOCALIDATA

<https://www.localidata.com/visualizacion-de-presupuestos/index.htm>

Localidata enpresak ere aurrekontu publikoak bistartzeko tresna eskaintzen du, herritar guztiek ulertzeko modukoa eta kudeaketa publikoaren gardentasunerako ezinbesteko elementua izango dena.



Aplikazioak ondorengo informazioa era irisgarrian eskaintzen du:

- Egungo aurrekontua eta gauzatzea
- Historikoa eta bilakaera
- Adierazleak
- Grafiko interaktiboak, laburpen-grafikoak, taula hedagarriak
- Open Data ataritik deskarga daitezkeen datu irekiak eta normalizatuak

Grafikoek galdera hauei erantzuten diete:

- NOLA finantzatzen diren zerbitzu publikoak
- ZERTAN gastatzen da aurrekontua?
- NORK gastatzen du aurrekontua?
- NOLA gastatzen den aurrekontua



ERABILPEN KASUAK

- Alcobendas-ko Udala: <https://datos.alcobendas.org/presupuestos2022.html#/~/total>
- Rivas Vaciamadrid-eko Udala: <https://datosabiertos.rivasciudad.es/presupuestos2021.html#/~/total>
- Arganda del Rey-ko Udala: <https://datosabiertos.ayto-arganda.es/presupuestos2022.html#/~/total>

12) COOK COUNTY OPEN BUDGET

<https://budget.cookcountyil.gov/#!/year/default>

Cook County, Illinois, EEBB. Aurrekontu Irekiak izeneko bisualizazio orria daukate:




Web plataforma erabilerraza eta osoa da; informazio asko eskaintzen den arren, nabigatzea erraza suertatzen da. Erabiltzaileak datuak ikusteko modu ezberdinak aukera ditzake.

13) HERBEHERETAKO HAINBAT UDALERRIEN AURREKONTUAK IRUDIKATZEKO INFOGRAFIKAK

Herbeheretako hainbat udalerrik aurrekontuak azaltzeko infografia ulerterraz eta estetikoki atseginak landu dituzte. Irudiak estatikoak dira baina informazio garrantzitsuena era errazean zabaltzeko balio dute. Hemen adibide batzuk:

GRONINGEN

<https://gemeenteraad.groningen.nl/Vergaderingen/Politieke-woensdag-Dag-agenda/2021/03-november/09:30/Bijlage-Begroting-in-een-oogopslag-1.pdf>



HENDRIK IDO AMBACHT

[Begroting en jaarverslag - Gemeente Hendrik-Ido-Ambacht \(h-i-ambacht.nl\)](https://www.h-i-ambacht.nl/begroting-en-jaarverslag)




LANSINGERLAND

[De begroting in een oogopslag - Gemeente Lansingerland](https://www.lansingerland.nl/begroting-in-een-oogopslag)



14) RIDDERKERK UDALERRIAREN AURREKONTUEN BISUALIZAZIO WEBGUNEA


[Programmabegroting 2020 - Begroting in één oogopslag \(begrotingsapp.nl\)](#)



Herbeheretako udalerrri honek aurrekontuak irudikatzeko webgune aurreratua dauka; bertan irudi interaktiboak eta infografia aurreratua eskaintzen dira aurrekontuak era errazean ulertzeko.

15) ESPAINAR ESTATUKO AURREKONTU OROKORREN BISUALIZAZIO ORRIA

<https://app.powerbi.com/view?r=eyJrIjoiMmNjYjNINDctMTUwZS00MDk3LW11MzktZGY0NDY4YzRhNzBiliwidCI6IjEwNmQ2ZDMyLTU2ODktNGMwZi1hNTdkLT12MzFmMWZkMWYyOCIsImMiOiJ9>



Web plataforma honetan Espainiar Estatuko Aurrekontuei buruzko informazioa ematen da era bisualean, eta nahiko era errazean nabigatu daiteke. Plataforma honen berezitasuna da Microsoft-en PowerBI teknologiarekin sortutakoa dela.